

## 7 Teoría King Kong

V. Despentés. Random House

## 8 El secuestro de la justicia

I. Escolar/ J. Bosch. Roca

## 9 Miradas en torno al pro-

ces  
R. Zallo/Txema García. Txertoa

## 10 El peligro de la historia única

C. Ngozi Adichie. Random House

### EUSKERA

## Fikzioa

### 1 Zubigileak

Alfonso Zapico. Astiberri

### 2 Bihotz handiegia

Eider Rodriguez. Susa

### 3 Jenisjoplin

Uxue Alberdi. Susa

### 4 Azala erre

Danele Sarriugarte. Elkar

## Ez fikzioa

### 1 Juan Cruz de Eguileor

J. Eguiraun. Bilbao 700

### 2 Alardeak, ukatutako plaza

M. Asensio/A. Iraola. Elkar

### 3 Uda batez Kurdistanen

Zekine Turkeri. Elkar

### 4 Lurralde eta herria

Eneko Bidegain. Pamiela

## DIRECTORIO DE TIENDAS

Elkar; Fnac; Cámara; Casa del Libro; El Corte Inglés.

## Idaztea, bizitzea

### AHOTSAK ETA ITZALAK

Egilea: Maixa Zugasti.  
Argitaletxea: Erein.  
Orrialdeak: 240.  
Prezioa: 18 euro.



### JAVIER ROJO

Maixa Zugastik iaz egin zuen agerpena euskal literaturan 'L.A.A.' izenburua zuen nobelarekin. Ora-in, hasiera hori ez zela egun bateko kontua frogatuz, bigarren nobela plazaratu du: 'Ahotsak eta itzalak'. Gaia, gerran haur batzuek bizi izandako gertakari tragiko batzuen inguruan antolatuta dago. Gehiegi zehazten ez den gerra batean, bi anaiak (Luis eta Arturo) eta haien aitak muga zeharkatu dute egoitza batean aterpea hartzeko, ustez-eta salbu egongo direla bertan. Atzean utzi dituzte ama eta arreba, laster haiekin elkartuko direlakoan. Dena dela, egoitzan ere arriskua dagoela ikusita, handik alde egin beharko dute. Argumentua oinarri hauen gainean eraikitzen da, eta gerran gertatu ohi diren krudelkeriak azaltzen dira narrazioan zehar. Baina gaia bezain interesgarria da

idazleak hau guztia kontatzeko erabili duen prozedura.

Narrazioa hainbat mailatan garatzen da. Lehenengo eta behin, gerran bizi izandako gertakariak ditugu, narrazioan Arturoren ikus-puntutik kontatuak. Baina gertakari horien berri ematen dituen ez da Arturo, Luis heldua baizik, Arturoren lekuan jarrita. Horrez gain Luisen emazteak istorio hori interpretatu eta osatu egingo du. Gauzak aurkezten diren bezala, gertatutakoa, idatzitakoa, gogoratutakoa eta interpretatutakoa nahasi egiten dira narrazio konplexu honetan. Eta konplexutasun horrek berak adi egon behar duen irakurlea eskatzen du, momentu bakoitzean zein mailatan dagoen ahantz ez dezan. Izan ere, benetan gertatutakoa eta horren gainean idatzitakoa guztiz bat ez datozenean, oroimenak huts egiten duenean, idazketa gertakariak gordetzeko lanabes nagusia bezala aurkezten da, oso fidagarria izan ez arren, zeren idazten den neurrian historia bera osatzen baita, hein handi batean historia berrasmatuz. Idazketak egia azaltzen duen modu berean estali ere egiten du, ezinbestez, idazketaren bidez agertzen zaiguna urte batzuk pasatutakoan oroimenean moldatzen den narrazioa baita.

Guztiz interesgarria da Maixa Zugastiren liburua, anbiziotsua literaturaren aldetik. Kontuan hartzeko moduko izen baten aurrean gaude, dudarik gabe.

## La esperanza en una gran ciudad

### LA INTEGRACIÓN

Autora: Luciano Bianciardi.  
Género: Novela.  
Editorial: errata naturae.  
Páginas: 144. Precio: 14 euros.



Novela publicada por primera vez en 1960, cuenta la historia de dos hermanos que, por los años cincuenta, se trasladan a Milán desde una pequeña ciudad de provincia. Uno de ellos es un jugador de fútbol fracasado y antifascista. En la novela se muestra como la voz narradora, mientras que su hermano se sitúa en el papel opuesto, pero, al mismo tiempo, complementario. Les une, además, de que están convencidos de que la gran ciudad es la única opción que les pueda librarlos de la frustración que les ha dejado la guerra. Se trata de una sátira sobre reuniones, discusiones, vanidades, etc., de grupos de intelectuales. Luciano Bianciardi (1922-1971) destacó muy especialmente por los años 50-60 en el mundo literario italiano. S.A.

## Paul Auster, vida y obra al desnudo

### UNA VIDA EN PALABRAS

Autor: I. B. Siegmundfeldt.  
Traductor: Benito Gómez Ibáñez.  
Editorial: Seix Barral. Páginas: 416.  
Precio: 21 euros.



'Una vida en palabras' recoge los diálogos que mantuvieron el novelista Paul Auster y la profesora danesa I. B. Siegmundfeldt acerca del oficio, el arte y la vida del escritor. La obra va más allá de la biografía documentada y se adentra en múltiples facetas de la trayectoria artística del autor de 'Trilogía de Nueva York', incluidas confesiones que Auster nunca había compartido. El relato de las conversaciones fluye de enseñanzas que a menudo saltan del campo de la literatura para hablarnos de la vida misma. Las conversaciones entre ambos empezaron en 2011 y se han desarrollado a lo largo de cinco años, cubriendo todas las obras narrativas del autor, así como los temas y obsesiones que las atraviesan. R.K.